SERIEAREN KODEA	0196

I.- IDENTIFIKAZIOA

1.1. Seriearen izena

1.1.1	**Artxibo-zerbitzuko erreferentzia-kodea**		
1.1.2	**Artxiboko sailkapen-koadroko kodea**		
1.1.3	**Indarrean dagoen izena**	Aurrekontuetan aurreikusita ez dauden eta zuzenean ematen diren dirulaguntzen espedienteak	
1.1.4	**Aurreko izena / beste izen batzuk**		
1.1.5	**Definizioa/deskribapena**	Aurrekontuetan aurreikusita ez dauden eta zuzenean ematen diren dirulaguntzen espedienteak; hain zuzen ere, lege-mailako arau batek ezarritako dirulaguntzak edo deialdi publikoa egitea eragozten duten interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen dituzten dirulaguntzak dira.	
1.1.6	**Egilearen edo egileen izena**	Erakundea: Eusko Jaurlaritza Arloa: Saila:	
1.1.7	**Serie baten zatia**	Bai:	Ez: X

1.2 Jatorria eta sortze- eta iraungitze-data

Erakundea	**Administrazio-unitatea / Funtzioa**	**Hasierako data**	**Amaierako data**
Toki-administrazioa	Sailak / Arloak	1979	Irekia
Eusko Jaurlaritza	Sailak / Arloak		

1.3 Lege-esparrua

1.3.1 Orokorra

Maila	**Zenbakia**	**Izenburua**	**Xedapenaren data**	**Buletinaren zenbakia**	**Argitalpen-data**
Lege Organikoa	3/1979	Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua onartzen duena.	1979/12/18	BOE, 306. zk.	1979/12/22
Legea	12/1981	Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena	1981/05/13	BOE, 127 zk.; EHAA, 025. zk.	1981/05/28 / 1981/05/30
Legea	7/1985	Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena	1985/04/02	BOE, 080. zk.	1985/04/03
ELD	781/1986	Toki-araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bategina onartzen duena	1986/04/18	BOE, 096. zk.	1986/04/22
ED	2568/1986	Toki-erakundeen antolaketaren, funtzionamenduaren eta araubide juridikoaren erregelamendua onartzen duena	1986/11/28	BOE, 305. zk.	1986/12/22
Legea	1/1988	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas / Herri-Kontuen Euskal Epaitegiarena	1988/02/05	EHAA, 044. zk.	1988/03/03
Legea	19/1988	Kontu-auditoretzari buruzkoa	1988/07/12	BOE,	1988/07/15

				169. zk.	
FA	63/1989	eskualdeei buruzkoa	1989/11/20	ALHAO, 142. zk.	1989/12/11
ED	1636/1990	Kontuen Ikuskaritzako uztailaren 12ko 19/1988 Legean garatutako Erregelamendua onartzen duena.	1990/12/20	BOE, 308. zk.	1990/12/25
Legea	30/1992	Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena	1992/11/26	BOE, 285. zk.	1992/11/27
FA	11/1995	Arabako Lurralde Historikoko Herri-batzarrei buruzkoa	1995/03/20	ALHAO, 038. zk.	1995/03/31
FA	3/95	Bizkaiko udalez gaindiko eremuko erakundeak araupetzekoa	1995/03/30	BAO, 073. zk.	1995/04/18
Legea	11/1999	7/1985 legea aldatzen duena eta tokiko gobernua garatzeko beste neurri batzuk dakartzana.	1999/04/21	BOE, 096. zk.	1999/04/22
Lege Organikoa	15/1999	Datu pertsonalak babestekoa	1999/12/13	BOE, 298. zk.	1999/12/14
Legea	12/2002	Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duena	2002/05/23	BOE, 124. zk.	2002/05/24
FA	10/2003	Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa	2003/12/02	BAO, 239. zk.	2003/12/15
Legea	57/2003	tokiko gobernua modernizatzeko neurriei buruzkoa	2003/12/16	BOE, 301. zk.	2003/12/17
Legea	4/2005	Emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa	2005/02/18	EHAA, 042. zk.	2005/03/02
ED	939/2005	Diru-bilketako Erregelamendu Orokorra onartzen duena.	2005/07/29	BOE, 210. zk.	2005/09/02
Legea	5/2006	Euskadiko Ondareari buruzkoa	2006/11/17	BOE, 266. zk.	2006/11/04
FA	6/2007	Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituena	2007/04/10	GAO, 078. zk.	2007/04/23
Legea	28/2007	Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldatzen duena	2007/10/25	BOE, 257. zk.	2007/10/26
FA	255/2007	Toki entitateen Kontabilitate Instrukzioa eta Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorraren hainbat xedapenen aldaketa onartzen duena	2007/12/18	BAO, 249. zk.	2007/12/24
ED	1720/2007	Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen araudia onartzen duena	2007/12/21	BOE, 017. zk.	2008/01/19
Legegintza ko dekretua	2/2007	Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzekoa	2007/11/06	EHAA, 15. zk.	2008/01/22
ED	2009/2009	1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren bidez onartutako Toki Korporazioen Zerbitzu Erregelamendua aldatzekoa	2009/12/23	BOE, 313. zk.	2009/12/29
ELD	1/2011	Kontu-auditoretzari buruzko legearen testu bategina onartzen duena	2011/07/01	BOE, 157. zk.	2011/07/02
Legea	22/2015	Kontu-auditoretzari buruzkoa	2015/07/20	BOE, 173. zk.	2015/07/21
Legea	39/2015	Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkidearena	2015/10/01	BOE, 236. zk.	2015/10/02
Legea	**2/2016**	**Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa**	**2016/04/07**	**EHAA, 70. zk.**	**2016/04/14**
Errege	**203/2021**	**Sektore publikoak bitarteko elektronikoen**	**2021/03/30**	**BOE,**	**2021/03/31**

Dekretua		**bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua onartzen duena.**		**77. zk.**	

1.3.2 Espezifikoa

Maila	Zenbakia	Izenburua	Xedapenaren data	Buletinaren zenbakia	Argitalpen-data
Legea	7/1997	Dirulaguntzen eta laguntzen erregimena arautu eta Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legea aldatzen duena.	1997/06/19	BOE, 9. zk.	2012/01/11
Legegintzako dekretua	1/1997	Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena	11711/1997	EHAA, 11. zk.	1997/01/19
Legea	38/2003	Dirulaguntzen Lege Orokorra	2003/11/17	BOE, 276. zk.	2003/11/18
FA	10/2003	Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa	2003/12/02	BAO, 239. zk.	2003/12/15
ED	887/2006	Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duena	2006/07/21	BOE, 176. zk.	2006/07/25
Legea	1/2015	1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena	2015/03/26	BOE, 91. zk. EHAA, 62. zk.	2015/04/16 2015/04/01
Errege Dekretua	**130/2019**	**Dirulaguntzen Datu-base Nazionala eta dirulaguntzen zein gainerako laguntza publikoen publizitatea arautzen dituena.**	**2019/03/08**	**BOE, 77. zk.**	**2019/03/30**
Legea	**11/2020**	**2021 urteko Estatuko Aurrekontu Orokorrena**	**2021/12/30**	**BOE, 341. zk.**	**2020/12/31**

II.- EZAUGARRIAK

2.1 Ezaugarri fisikoak eta orokorrak

2.1.1	Euskarria	Papera / Elektronikoa
2.1.2	Deskribapen-maila	Seriea
2.1.3	Kopiarik badagoen beste euskarri batzuetan	
2.1.4	Urtean zenbat handituko den (balioespena)	
2.1.5	Seriearen bolumena	
2.1.6	Ordenatzeko irizpideak	
2.1.7	Seriearen hasierako data	
2.1.8	Seriearen amaierako data	Serie irekia
2.1.9	Ale-kopurua eta non dauden	

2.2 Izapidetze-prozedura

2.2.1	**Espedientea osatzen duten dokumentuak**
Hasiera eta izapidetzea: - Eskabidea. - Onuradunak aurkeztutako dokumentazioa: o Erantzukizunpeko adierazpena. o Zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren egiaztagiriak.	

- Jardueren proiektua
- Jardueren aurrekontua.

- Akatsak zuzentzeko errekerimendua, beharrezkoa bada.
- Ematen duen organoaren kontabiltateko dokumentazioa.

Ebazpena:
- Ebazpena / Erabakia
- Jakinarazpena.

Justifikazioa:
1. Justifikazio-kontua:
   - Jarduera-memoria
   - Memoria ekonomikoa.
     - Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua.
     - Aurreko zerrendako fakturak edo froga-balioa duten dokumentuak.
     - Tasatzailearen ziurtagiria, ondasun higiezinak eskuratu badira.
     - Kostu orokorrak banatzeko irizpideak.
     - Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda, zenbatekoa eta jatorria adierazita daudela.
2. Modulukako egiaztapena:
   - Txosten tekniko arrazoitua.
   - Jarduera-memoria.
   - Txosten ekonomikoa:
     - Onuradunaren adierazpena, modulutzat hartutako unitate fisikoen kopuruari buruzkoa.
     - Dirulaguntzaren zenbatekoa, jarduera-memorian eta oinarri arautzaileetan jasotako moduluetan kuantifikatutako jardueren arabera kalkulatuta.
     - Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru-sarreren edo dirulaguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.
3. Kontabilitate-egoeren aurkezpena:
   - Kontabilitateari buruzko informazioa.
   - Kontabilitateko auditoretza.
   - Txosten osagarria, kontu-auditoreak egina.

- Zuzentzeko edo dokumentazio gehigarria aurkezteko errekerimenduak, hala badagokio
- Dokumentazioaren zuzenketak, hala badagokio
- Onarpenaren ebazpena
- Ebazpena onuradunari jakinaraztea.

Ordainketak:
- Ordaintzeko kontabilitate-dokumentuak.

Dirua itzultzea (Hala badagokio):
- Dirua itzultzeko prozedura hasteko txostena.
- Hasteko ebazpena
- Onuradunari jakinaraztea
- Interesdunak aurkeztutako alegazioak eta dokumentazioa
- Diru-itzulketaren txostena
- Ebazpen-proposamena, diru-itzulketaren txostena ere barne duena.
- Ebazpena
- Ebazpena onuradunari jakinaraztea

2.2.2.	**Administrazio-prozedura**

Aurrekontuetan aurreikusita ez dauden eta zuzenean ematen diren bi dirulaguntza mota daude:

a) Salbuespen izaeraz, **interes publikoko edo gizarte-, ekonomia- edo giza-intereseko arrazoiak egiaztatzen dituzten** edo deialdi publikoa egitea zailtzen duten arrazoiak justifikatzen dituzten dirulaguntzak.
b) Administrazioari **lege-mailako arau** baten bidez ezarritakoak.

Hasiera eta izapidetzea:
Oro har, espedientearen hasiera eskatzailearekin izandako aldez aurreko harremanak dira, zeinetan eskatzaileak dirulaguntza mota hori eskatzeko presa, premia, komenigarritasuna eta abar azaltzen dituen.

Proiektua egokia dela egiaztatu ondoren, **entitateak** eskabidea aurkeztuko du, honako dokumentazio hau erantsita:
- Dirulaguntzak jasotzeko debekurik ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena (**Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen 13. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 24.2 artikulua**).
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen egiaztagiriak.
- Aurrekontua, beharrezkoa bada.

Teknikariek eman beharreko dirulaguntza arautuko duten baldintzak idatziko dituzte, eta hauek jasoko dira, besteak beste:
1. Dirulaguntzaren ezaugarriak:
   a) Xedea eta onuraduna.
   b) Gastua zer aurrekontu-krediturri egozten zaion eta dirulaguntzaren zenbatekoa.
   c) Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna.
   d) Ordainketa-epeak eta -moduak.
   e) Justifikatzeko epea eta modua.
2. Onuradunen betebeharrak.
   a) Dirulaguntza ematea bidezko egiten duen jarduera gauzatzea edo dirulaguntza ematea bidezko egiten duen egoeran egotea.
   b) Baldintzak betetzen direla eta jarduera egin dela justifikatzea
   c) Dirulaguntza ematen duen organoaren egiaztatze-jarduerei men egitea.
   d) Helburu bererako beste laguntzarik jasoz gero, horren berri ematea.
   e) Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein egoeraren aldaketaren berri ematea.
3. Onuradunak dirulaguntza zabaltzeko hartutako neurriak, haren izaera publikoari publizitatea emateko (**887/2006 Erregelamenduaren 31. artikulua**).

Ebazpena:

Ebazpena emateko eskumena duen organoari bidaliko zaio. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, dagokion sailak emango du dirulaguntza, eta Gobernu Kontseiluari helaraziko dio proposamena, hari buruzko ebazpena egin dezan. Udalen kasuan, Gobernu Batzordea edo organo baliokidea izango da.
Interesdunari jakinaraziko zaio.

Justifikazioa:
Justifikatzeko modua eta egitura dirulaguntzaren oinarrietan ezarriko dira (**Erregelamenduaren 71. artikulua**), eta modalitate hauek izan ditzake:

1. **Justifikazio-kontua** (Erregelamenduaren 72 artikulua)

Hauek jasoko ditu, oro har:
- Jarduketa-memoria, dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzeko. Egin diren jarduerak eta lortutako emaitzak jasoko ditu.
- Memoria ekonomikoa, egindako jardueren kostuaren berri ematen duena. Memorian, hauek jasoko dira:
  - Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua.
  - Aurreko zerrendako fakturak edo froga-balioa duten dokumentuak.
  - Tasatzailearen ziurtagiria, ondasun higiezinak eskuratu badira.
  - Kostu orokorrak banatzeko irizpideak.
  - Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda, zenbatekoa eta jatorria adierazita daudela.

Kontua jarduera egiteko epea amaitu eta gehienez hiru hilabeteko epean aurkeztuko da.
60.000 €-tik beherako dirulaguntzetarako, oinarri arautzaileetan hala aurreikusi bada, justifikazio-kontu sinplifikatua aurkeztu ahal izango da. Informazio hau izango du:

- ✓ Jarduketa-memoria, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzeko. Egin diren jarduerak eta lortutako emaitzak jasoko ditu.
- ✓ Gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, eta aurrekontu baten arabera eman badira, izandako desbideratzeak, halakorik izanez gero.
- ✓ Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda. Zenbatekoa eta jatorria adierazi beharko dira.
- ✓ Hala badagokio, itzulketaren ordain-gutuna, aplikatu ez diren geldikinak izanez gero, bai eta horietatik eratorritako interesena ere.

Onuradunek eskatzen zaizkien liburuak, erregistroak eta dokumentuak aurkeztu beharko dituzte.

2. **Modulukako egiaztapena** (**Erregelamenduaren 76. artikulutik 79.era bitartekoak**)

Modulukako egiaztapena egin ahal izango da, diruz lagundu daitekeen jarduera unitate fisikotan neur badaiteke, jardueraren merkatu-balioaren ebidentzia edo erreferentzia badago eta moduluen zenbateko unitarioa txosten tekniko arrazoitu batean oinarrituta zehazten bada.
Egiaztatze-sistema hori baliatzeko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- ✓ Jarduketa-memoria, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzeko. Egin diren jarduerak eta lortutako emaitzak jasoko ditu.
- ✓ Justifikazioko memoria ekonomiko bat, honako alderdi hauek jasoko dituena:
  - o Egiaztapena edo onuradunaren adierazpena, modulutzat hartutako unitate fisikoen kopuruari buruzkoa.
  - o Dirulaguntzaren zenbatekoa, jarduera-memorian eta oinarri arautzaileetan jasotako moduluetan kuantifikatutako jardueren arabera kalkulatuta.
  - o Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru-sarreren edo dirulaguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

3. **Kontabilitate-egoeren aurkezpena**.

Kontabilitate-informazioa, kontabilitate-auditoretza eta kontu-auditoreak egindako txosten osagarria aurkeztuko dira.

Dirulaguntza ematen duen organoak frogagiriak egiaztatuko ditu, ezarritako metodoaren arabera. Egiaztapenean akatsak antzematen baditu, dagokion zuzenketa eskatuko zaio 10 eguneko epean.

Ordainketak:
Dirulaguntza justifikatu ondoren ordainduko da, justifikatutako zenbatekoaren proportzioan.
Ordainketa zatikatuak egin ahal izango dira, diruz lagundutako ekintzen egikaritze-etapekin bat etorriz. Ordainketa-aurrerapenak ere egin ahal izango dira justifikazioa egin aurretik, jarduerak egiteko beharrezko finantzaketa gisa. Aukera hori eta bermeak arauetan jaso beharko dira.

Dirua itzultzea:
Arrazoi hauengatik itzuli beharko dira dirulaguntzak: (**1/1997 LD, 29.12 artikulua, eta 887/2006 ED, 91. artikulutik 100.era bitartekoak**):

a) Dirulaguntza emateko ezarritako betebeharrak ez betetzea.
b) Justifikatzeko betebeharra ez betetzea.
c) Jasotako dirulaguntzaren zabalkunderako neurriak hartzeko betebeharra ez betetzea.
d) Kontrol-jarduketak egiten ez uztea edo oztopoak jartzea.
e) Aldi berean beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako laguntzak edo dirulaguntzak jasotzeak eta helburu bererako beste edozein diru-sarrera edo baliabide jasotzeak laguntza emateko ebazpena aldatzea eragin dezakete.

Ez-betetzearen adierazpena eta itzulketa-espedientea hasteko erabakia:
Espedientearen hasiera ofizioz egingo da, eta arrazoia, bete ez diren betebeharrak eta eragindako dirulaguntzaren zenbatekoa adierazi beharko dira. Espedientea hasteko erabakia onuradunari jakinaraziko zaio, eta 15 eguneko epea emango zaio alegazioak egiteko edo dokumentazioa aurkezteko.
Aurkeztutako alegazioak eta organo kudeatzailearen iritzia kontuan hartuta egingo du itzulketa-txostena kontrol-organoak. Txosten hori hilabeteko epean eman beharko da, dokumentazio osoa jasotzen denetik zenbatzen hasita, eta

hor zehaztuko da eskatu beharreko itzulketaren zenbatekoa. Organo kudeatzaileak ebazpen-proposamena egingo du (itzulketa-txostena jasoko du), organo eskudunak onartuko du eta ebazpena emango du. Ebazpenean adieraziko da zein diren bete ez diren betebeharrak, diru-itzultzearen arrazoia, eta itzuli beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa berandutze-interesen likidazioarekin batera. Ebazpena interesdunari jakinaraziko zaio.

Errekurtsoak:

- Errekurtso hauek jar dakizkioke itzulketa-ebazpenari:
  - o Aukerako berraztertzeko errekurtsoa: ebazpena eman zuen organo beraren aurrean, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera.
  - o Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa: dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

2.3 Beste dokumentu batzuekiko lotura

2.3.1	**Aurreko serieak**	
2.3.2	**Beheragoko serieak**	
2.3.3	**Lotutako serieak**	
2.3.4	**Bilduma-dokumentuak**	-Gobernu Kontseiluaren erabakiak.

III. BALORAZIOA

3. Balioak

3.1.	Administratiboa	Bai, 2 urte.
3.2	Legezkoa/juridikoa	Bai, 6 urte.
3.3	Zerga-alorrekoa	Bai, 6 urte.
3.4	Informatiboa	Bai.
3.5	Historikoa	Bai.

IV. HAUTAKETA

4.1 Hautaketa-proposamena

Kontserbazio iraunkorra	Bai.
Guztiz ezabatzea	
Zati batean ezabatzea	

4.2 Laginketa-motaren proposamena

Hautakorra	
Ausazkoa	
Mistoa	
Probabilistikoa	
Beste batzuk	

4.3 Transferentzia-epeak

Artxibo nagusira: epea eta justifikazioa	5 urte, arloak espedienteak artxibatzen dituenetik.
Tarteko artxibora / artxibo historikora: epea eta justifikazioa	

V. SARBIDEA

5.1	Askea	Bai. **19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.** **12. artikulutik 16.era bitartean** **- Azken xedapenetako lehenengoa. Herri Administrazioen Araubide**

		Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzekoa. **37. artikulua. Informazio publikorako irispidea izateko eskubidea.** Herritarrek eskubidea dute informazio publikora, artxiboetara eta erregistroetara irispidea izateko, Konstituzioan eta 19/2013 Legean (19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzkoa) eta aplikatzekoak diren gainerako legeetan ezarritako baldintzen arabera.»
5.2	Mugatua	
5.3	Epeak	
5.4	Erreprodukzio-baldintzak	Artxiboaren araudiaren araberakoa
5.5	Dokumentuen hizkuntza	Gaztelania/Euskara
5.6	Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak	Paper-euskarria eta euskarri elektronikoa
5.7	Deskribapen-tresnak	
5.8	Iruzkinak	

VI.- OHARRAK

6.1	Oharrak	
6.2	Kudeatzailearentzako gomendioak	

VII- KONTROL-ARLOA / OHARREN ARLOA

Azterketaren arduraduna eta organismoaren izena	ABYC Soluciones Documentales SL
Landa-lana egin den artxiboa/k	Eusko Jaurlaritzaren artxiboa
Aztertutako aldien muturreko datak	1997-2016
Azterketaren data	2016ko abendua
Azterketaren berrikuste-data	
DOBAUBAren onarpen-data	2017/03/06
EHAAko argitaratze-data	2017/04/11
Oharrak	

I. ERANSKINA

DIGITALIZATUTAKO ESPEDIENTEA (Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila)

Espediente-zenbakia: CUNPC-00109 – Espediente-zenbakia: 200201284 A/0581):
(alderantzizko ordena)

- P dokumentua (Ordainketa)
- MV dokumentua (muga-eguna aldatzea)
- Dirulaguntzaren bigarren ordainketa transferitzeko eskabidea, 2003/09/15.
- Eskuz idatzitako oharra
- Dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa, 2003/07/23.
    - Gastua justifikatzeko fakturen zerrenda.
    - Alokairuaren ordainagiria, 2003ko urtarriletik abendura artekoa.

  - Red Española de Teatros Auditorios y Circuitos de titularidad pública sarearen, kultura-elkartearen eta xxx(e)ren arteko alokairu-kontratua, 2003/01/01.
  - Zerga Agentziaren ziurtagiria, errentatzailea alokairuko atxikipenetik salbuetsita dagoela egiaztatzen duena, 2001 eta 2003 ekitaldiak, 2002/01/31
  - Fakturak
  - Zerga Agentziaren aldeko ziurtagiria, zerga-aitorpenak aurkeztu direla egiaztatzen duena.
- P dokumentua (Ordainketa)
- Dirulaguntzaren lehenengo ordainketa transferitzeko eskabidea, 2003/01/15.
- Ordainketa onartzeko eskabidea, 2003/01/14
- Gobernu Kontseiluak, Kulturako sailburuaren proposamenez, dirulaguntza emateko hartutako erabakiaren ziurtagiria, 2003/01/15.
- OR dokumentua (itxitako aurrekontuen hondarretan onartutako betebeharra)
- OR dokumentua (itxitako aurrekontuen hondarretan onartutako betebeharra)
- O dokumentua (obligazio aitortua)
- D dokumentua (xedapena)
- A dokumentua (baimena)
- Laguntza-eskaera, 2002/12/20
  - Aurrekontua
  - Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketa-betebeharretan egunean dagoela dioten egiaztagiriak.
- Hirugarrenaren datuen alta (VII. eranskina)